

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Sanz Lehendakariak Karlos III.a Prestuaren beste lau gurutze eman ditu

Elikagai Bankuak, Manos Unidas kanpainak, Proyecto Hombre fundazioak, Crisanto Ayanzek eta Agustín Otondok jaso dituzte gurutzeak

Martes, 07 de junio de 2011

Miguel Sanz Nafarroako jarduneko lehendakaria, gaur eguerdian, Karlos III.a Prestuaren Gurutzeak banatzeko ekitaldiaren buru izan da, Nafarroako Jauregiko Tronu Aretoan. Gurutze horren helburua da Nafarroaren aurrerabidean edo Foru Erkidegoa, bertako jardueren bitartez, nazioartera zabaltzen nabarmen lagundu duten pertsona eta erakundeen meritua azpimarratzea eta jendearen aurrean eskertzea.



Ayanz, Orbe, Torres, Sanz, Otondo, Garde eta Almagro Karlos III.a Prestuaren Gurutzeak banatzeko ekitaldian

Oraingoan, sarituak hauek izan dira: [Elikagai Bankuak](#), [Manos Unidasek](#) eta [Proyecto Hombrek](#) Foru Erkidegoan dituzten ordezkariak, Carlos Almagro, Asunción Orbe eta Elena Garde ordezkari dituztela; [Crisanto Ayanz](#) Argentinako eta Txileko Zentro Nafarren Federazioko presidentea; eta [Agustín Otondo](#) Txileko Zentro Nafarraren sortzailea eta lehen presidentea.

Elikagai Bankuaren, Manos Unidasen, Proyecto Hombreren eta Crisanto Ayanzen gurutzea aurten eman dira. Aldiz, Agustín Otondorena 2010ean onetsi zen, orain jaso duen arren. Sanz Lehendakariak ezin izan zion eman Hego Amerikara abenduan egin zuen bidaian, aurreikusitako bezala, aireko kontroladoreen grebagatik.

Ekitaldian Foru
Gobernuko kontseilariak eta
Nafarroako alor politiko,
ekonomiko eta sozialeko
ordezkariak ere izan dira, eta
Nafarroako ereserkia entzunez
hasi dute (Erresumako sarrera
martxa). Nafarroako Goi
Mailako Musika Kontserbatoriko

metalezko musika tresnen taldea arduratu da musikaz eta
Dietrich Buxtehuderen Fanfare & Chorus eta Georg Friedrich
Händelen Su Artifizialetarako Musika lanak interpretatu dituzte.
Zuzendaria Miguel Sansiñena izan da.



Crisanto Ayanzen mintzaldia Karlos III.a
Prestuaren gurutzeak banatzeko ekitaldian

Sarituak

Gurutzea emateko dekretuetan adierazitakoaren arabera, Gobernuak Nafarroako Elikagai Bankuari eman dio gurutzea "Solidarioak izatearren eta lanean etengabe aritzearren askotariko arazoak direla-eta egoera ezegonkorrean bizi diren eta elikagaiak erosteko dirurik ez duten pertsona eta familientzako elikagaiak biltzeko".

Manos Unidas Navarraren inguruan Gobernuak esan du "probezia, gosea, malnutrizioa, gaixotasunak, eskolaterik eza eta azpigarapena bezalako munduko arazo larriei erantzun aktiboak eta eraginkorrak" ematen lagundu duela, baita Foru Erkidegoan ere.

Fundación Proyecto Hombre Navarraren kasuan, Gobernuak "pertsona ugariren drogazalatasunaren arazoari irtenbide eraginkorrak emateko egindako ahalegia eta, alor horretan, gizarte bazterkeriari aurre egin izana" eskertu du.

Gobernuak Crisanto Ayanzen lana ere nabarmendu du "Argentinan bizi diren nafarrei eta nafarren ondorengoei arreta emateagatik eta han daudenen ordezkari izateko lan goresgarria egiteagatik. Horrek, gainera, pertsona horiek Foru Erkidegoarekin duten lotura eta Nafarroaren irudi ona indartzen lagundu du".

Azkenik, Gobernuak Agustín Otondo eskertu du "Txileko nafarren ordezkari izateko eta historian zehar herrialde horretan izan diren nafarren ezagutza zehatza izateko" egin duen lan handiagatik.

Kondekorazioa 1997an eratu zuen Foru Gobernuak. Horren helburua Nafarroaren aurrerapena indartzen eta atzerrira zabaltzen lagundu duten pertsona eta erakundeen meritua azpimarratu eta jendearen aurrean eskertzea da. Kondekorazioa sortu zeneko dekretuan ezarritakoaren arabera, gurutzeari Karlos III.a Prestuaren izena eman zioten "Nafarroako erregeen artean nabarmenena izan zelako; jarrera baketsua eta bateratzailea izan zuelako, kulturaren eta artearen aldeko ekimenak aurrera eramane eta Europako gainerako gorteekin bakean eta adiskidetasunean oinarritutako harremanak ezarri zituelako".

Saria Maltako gurutze bat da; lau besoek esmalte gorria dute, urrez inguratuta daude eta metal beraz eginiko lis-lorea dute horietako bakoitzak. Erdian, Karlos III.a Prestuaren irudi maiestatikoa azaltzen da, esmaltatuta eta urrezko Nafarroako kateekin apainduta. Irudi hori Nafarroako Artxibo Nagusian gordeta dauden erregearen hainbat argizari-zigiluetakoa da. Atzeko aldean, Nafarroako ezkutu ofiziala eta, azpian, "Comunidad Foral de Navarra" eta "Cruz de Carlos III el Noble de Navarra" dioten testuak azaltzen dira.